

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irrunero

332

Irailak 1, 2018

JUAN DOMINGUEZ,  
Real Unioneko entrenatzaile berria:

**“Burua beti hurrengo partiduan edukitzea eta disfrutatzea da niretzat garrantzitsuena”**

- 4-5** Erromesentzako aterpea
- 6** Berri laburrak
- 7** Ruandako larrialdi egoera
- 8** Kirolak: Gurutz Aginagalderi elkarrizketa
- 9** Kirolak: Juan Domingezi elkarrizketa
- 10** Kolaborazioa: Gorka Martinez
- 11** Haurren leihoa / Denborapasak
- 12** Euskara Irunen Barrena / Gazteen lanak
- 13** Beti Gazte: Greziako elkartrukeko esperientzia
- 14** Gazte Informazioa
- 15** Agenda
- 16** Caser



Fernando  
Vergara  
argazkilaria

Letxunborra hiribidea 100,2º  
20305 Irun  
943 840 113 - 647 930 484

[www.fotogover.com](http://www.fotogover.com)  
[www.fotogoverbodas.com](http://www.fotogoverbodas.com)  
[info@fotogover.com](mailto:info@fotogover.com)



## MARITXU ANATOL ARISTEGUI



Maritxu Anatol Aristegui Irunen jaio zen 1909 urtean. Espainiako Gerra Zibila hasi zenean Hendaiara bizitzera joan zen. Bigarren Mundu Gerraren hasieran bere etxean alemaniar batzuk hartu zituen, baina, 1940 urtean konfiskatuak izan ziren.

Frantziar erresistentziarentzat lan egin zuen, informazio zereginetan eta iheslarien ihesaldietan lagunduz. Alemania naziko Gestapo poliziarengatik atxilotua izan zen Biarritz eta Baionako kartzeletan. Red Comète-rako lan egin zuen, eremu alemanean eroritako pilotoei lagunduz, taldea desartikulatu zuten arte. Aliatuek, ingelesek bereziki, Maritxuk erabilitako metodoez susmatu eta alde batera uztea erabaki zuten. 1945 urtean Irunera itzuli zen eta, 60ko hamarkadan, aduanen agentzia propioa zuzendu zuen.

1981 urtean hil zen. Irunen Iparralde etorbidearekiko perpendikularra den kale batek bere izena dauka.

**Iturria: Agustin Morate.**  
*Irun y sus gentes.*

## IRUNERO

**Erredakzioa eta maketazioa:**

Joseba Arozena  
Ainara Berges

**Publizitatea:**

Amaia Terrazas  
([amaia@irunero.eus](mailto:amaia@irunero.eus))  
Ion Otxoa  
([ion@irunero.eus](mailto:ion@irunero.eus))

**Diseinua eraberritzea:**

Andrea Gomez Arocena

**Argitaratzailea:**

837 comunicación y publicidad S.L  
[www.837comunicacion.com](http://www.837comunicacion.com)

**ISSN:**

1134-0606

**Lege gordailua:** SS-230-94

**Tel:** 943 04 20 52

**Wegunea:** [irunero.eus](http://irunero.eus)

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:



Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



# ikasturtea dantza



2018/2019 ikasturtea hastera doa!  
5 urtetik gorako haur (kurtsoan zehar beteak)  
eta gazteentzat.

Iñudeak eta Artzaiak, emanaldiak, irtenaldiak, bidaiak...

Talde txikiak eta  
esperientziadun irakasleak.

Klaseak Behobian dira.

Informazio gehiago lortzeko edo izena emateko:

Tel: 669184179 (Ane), WhatsApp erabilgarri.

Facebook: Eraiki Dantza Taldea

e-mail: eraikidantza@gmail.com

**ERAIKI**



1978 - 2018



# Erromesentzako aterpe berria



Uztaileko hilabetearen amaieran erromesentzako aterpe berria ireki zuten Jacobi elkarteak ki-deek. Aterpetxe berria Lesaka kalean kokaturik dago, aurretik haurzaindegia zegoen eraikinean. Aterpean, erromesei ostatua emateaz gain, paperezko maindireak eta gosaria banatzen dituzte egunero.

Aterpetxe berria Jacobi elkarteak erromes gehiagori baldintza txukunagoetan harrera egiteko aukera du. Hiru logela eta zazpi bainugelekin 61 pertsonentzako lekua daukate aterpe berria. Eraikinaren kanpoaldean kokaturiko estalkia da aterpearen nobedade nagusia, arratsalde euritsuetan erromesei kalera irteko aukera emango diena. Josin Galzacorta Jacobi elkarteak presidentea, azaldu du, "erromesei harrera ona egitea da orain gure kezka nagusia".

Aterpetxe berria martxan jartzeko Jacobi elkarteak esfortzu ekonomikoa egin behar izan du. Proiektua aurrera eramateko eskualdeko erakunde eta enpresa ezberdinen laguntza ezinbestekoa izan dela azaldu du Josin Galzacorta elkarteak presidentea. Inguruko laguntza jasotzeaz gain, Donejakue bidearen Amerikako Lagunen Elkarteak 6.000 dolareko diru-laguntza bidali die proiektua aurrera ateratzeko.

## Esperientzia pozgarrien bidegurutzea

Erromesen aterpetxeak aurrera ateratzeko egunero lanean ari diren pertsonak boluntarioak dira. Antolakuntzarekin harremanetan jarri ostean, norakoa esleitzen zaie eta 10 eguneko txandetan lan egiten dute.

Pilar Ibañezek lau urte daramatza Irungo erromesen aterpean boluntario lanetan. Ibañezek azaldu du, bere egitekoa aterpetxera iristen diren erromesei harrera egin eta informazioa eskaintzea da. "Lana egiteagatik ordainduko balidate, seguruenik, ez nintzateke etorriko", gaineratu du Ibañezek.

## Ibilbide anitzen abiapuntua

Geroz eta gehiago dira haien ibilbidean hiritik igarotzen diren erromesak. Izan ere, erromes askok Irun aukeratzen dute Donejakue bidearen barneko ibilbide ezberdinak abiatzeko. Adibidez, Frantziako, Kostaldeko edo Barnealdeko Donejakue Bideak egiteko helburuarekin iristen dira erromes asko Irunera. Datuen arabera, 2017 urtean, uztaileko hilabetearen amaierara arte 4.380 erromesek aterpe hartu zuten Irunen. Aurten, data berdinean, 4.437 erromes igaro dira Irungo erromesentzako aterpetik. Erromesen jatorriari dagokionez, joan den urtean 60 nazionalitate ezberdinetako pertsona igaro ziren Irungo aterpetik.



EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



Meaka auzoa, 9 - 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964



FELIX MANSO IBARLA JATETXEA



info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com

# martxan jarri du Jacobi elkarteak



## Rafael Adrover (Pilar Ibañezekin)

Rafael Mallorcatik Donejakue bidea egiteko asmoarekin etorri den irakasle bat da. Bide primitiboa osorik egin ostean, Frantziako bidea egiteko asmoa du oraingoan. Irailean berriro lanera hasi aurretik duen denbora guztia aprobetxatu nahi du bidean ahal bezain urrutien iristeko. Rafaelek azaldu duenez, bidaiatzeko eta bere barneko munduarekin eta naturarekin konektatzeko animatu zen Donejakue bidea egitera.



## Arianna Comiu

Arianna Comiu Sardiniatik bere lankide batekin batera Donejakue bidea egitera etorri da. Irunen hasiko dute haien ibilbidea eta, printzipioz, Portugalera iristeko asmoa dutela azaldu du. Aterpeko gainontzeko erromesekin giroa oso ona dela adierazi du, jendea oso adeitsua delako eta mundu guztia elkar laguntzen saiatzen delako.



## Juanjo Vernet

Tarragonako L'Hospitalet De L'Infant-etik datorren erromes bat da. Euskaditik igarotzen den bidearen eremua bakardadean egiteko asmoa du. Bidean orain arte oso jende jatorra topatu duela azaldu du. Aterpeari dagokionez, aterpetxe baten antz gehiago izango zuela uste zuen, baina, bertan familia giroa topatu duela azaldu du.



## Annamaria Bos

Annamaria Herbeheretatik etorri da Santiago de Compostelara iristeko asmoarekin. Aurretik, Frantziako bidea eta Portugaleko bidea egin ditu. Irungo aterpea berria izateaz gain, oso garbi dagoela azaldu du, baldintza okerragoetan dauden aterpetan ibili dela gaineratu ostean.



## Luis Miguel Nogales

Madriletik Iruneraino trenez etorri da bere bizikletarekin Donejakue bidea bertan abiatzeko. Aurretik Iparraldeko bidea egin du eta, oraingoan, Santiago de Compostelara bizikletaz iristeko asmoa du. Ibilbidea bakarrik hasiko duen arren, bidean zehar konpainia topatzea espero du. Aterpean segituan harrera egin diotela azaldu du eta pozik dago aterpearen barruan bizikletak gordetzeko leku bat dutelako.

Neumáticos  
**txepetxa**



NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,  
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99



# “Erosi eta ikasi Irunen” diru-laguntza martxan jarri du Udalak

“Erosi eta ikasi Irunen” kanpainaren bitartez Udalak familia irundarrei eskolako materialaren erosketa erraztu nahi die. 200.000 euro eskatzaileen artean diru-laguntzetan banatuko dira, familien errenta gordinaren zenbatekoen arabera kopuruetan. Irailaren 28ra arte zabalik egongo da diru-laguntza eskaria egiteko epea.

Ekainaren 22tik irailaren 18ra Irungo dendetan egindako eskolako materialaren erosketen egiaztagarriak aurkeztu beharko dira.

Derrigorrezko Hezkuntza adinean, Lehen Hezkuntzan edo DBHn, dauden 2001 eta 2012 urteen arte jaiotako

haurren familiek eskatu ahaliko dute beka. Diru-laguntzaren hartzaila izango den adingabea zein eskatzailea Irunen erroldaturik egotea ezinbestekoa izango da laguntza jaso ahal izateko. Diru-laguntzaren eskaera haurraren guraso edo tutoreek egin beharko dute.

Beka Irun Txartela erabiliz eskatu beharko da, 24hko HAZ Egoitza Elektronikoko zerbitzuaren bitartez. Idazteko materialak eta suntsigarriak, suntsigarria ez den eskolako materiala, eskolako jardueretarako beharrezkoak diren janzteko artikulak eta eskulantarako elementuen erosketa lagundu nahi da beka honen bitartez.



## Hiriko ikastetxeetan hobekuntza-lanak egin dira udako oporrak aprobetxatuz



Hiriko lau ikastetxeetan hobekuntza-lanak egin dira udako oporrak aprobetxatuz. 450.447,1 euroko inbertsioa egin da Toki Alai Haur Eskola, Udal Haur Eskola, Dunboa eta Eguzkitza zentroetan egin diren lanetan.

Ikastetxeekin beroiekin hitzartutako obrak dira eta Hezkuntza departamentuarekin koordinatuta, eta uda garaian egiten dira eskolako martxa normala ez oztopatzearen.

Toki Alai Haur Eskolaren patioaren estalketak eraman du lanetara bideratutako aurrekontuaren parterik handiena: 180.787,65 euro. Eraikina-ren hegoaldean eraikitako estalkiak 240 m<sup>2</sup> azalera estaltzen du. Bestetik, aurrekontuaren 100.000

euro erabili dira Udal Haur Eskolako zorua aldatu eta hezetan arazoei aurre egiteko.

Dunboa ikastetxean, berriaz, eraikina inguratzen duten hesiak berriro dituzte eta zentrorako sarbideetan hobekuntza-lanak egin dira. Hortaz gain, euri-urak jasotzeko kanalizazioan ere hobekuntzak egin dira, estalkiaren azpian uren pilaketa saihesteko. Guztira, 40.392,34 erabili dira Dunboa ikastetxe lanetan.

Azkenik, Eguzkitza ikastetxeeko patioan argi gehiago jarri da aurrekontuaren azken 47.983,08 euroak erabiliz.



MATRIKULA DOHAINIK

UDAN ERE,  
ASTINDU GORPUTZA!!!

Multi-Gym, Pilates,  
Sevillanak,  
latindar erritmoak,  
Yoga, haurrentzako  
pilates ikastaroak eta  
dantza garaikidea

Deitu 943 61 48 89  
edo idatzi tatianas@euskalnet.net

## Behar Bidasoak eta Irungo Udala elkarlanean ari dira Ruandako larrialdi-egoeran laguntzeko



Irungo Udala Behar Bidasoa GKEarekin elkartu da Ruandako larrialdi-egoeran laguntzeko. Azken hilabeteetan izandako euriteen ondorioz, herrialdea larrialdi egoeran aurkitzen da. Kalte pertsonalez gain, etxeak, nekazal eremuak eta sarbidea ahalbidetzen duten zubi zein errepedeak larriki kaltetu dira, populazioaren %40a gosetearen atalasearen ingurura bultzatuz.

**“Bestelako erakunde eta pertsona partikularren laguntzari esker kudeatzen ari gara larrialdi-egoera”**

Agustin Ugarte, Behar Bidasoako presidentea

2018ko urtarrileko hilabetetik Ruandan izandako euriteek kalte larriak eragin dituzte. Nyabarongo ibaiaren gainezkatzearen ondorioz 8 pertsona hil dira eta 50 etxebizitza suntsitu dira. Hortaz gain, uztak guztiz galdu dira eta herrirako sarbidea ahalbidetzen dute zubi zein bideak suntsitu dira. Gainera, lurraren ezegonkortasunaren ondorioz, lur-jauziak gertatzeko arrisku larria da.

Monica Martinez, Garapenerako Lankidetzarako ordezkariak azaldu du, “urtero, Lankidetzaren departamentuak kopuru bat erreserbatzen du bere aurrekontutik, larrialdiko egoera batzuk gertatzen badira, aktibatuzeko”. Aurten, Kabugako familiek bizi duten egoera larria dela eta, Udalak larrialdi-kopurua Behar Bidasoa erakundearen eskuetan jartzea erabaki du. Irungo Udalaren laguntza sei hilabetez 150 familia laguntzeko erabiliko da, baba-rrunak eta artoa behartsuen artean banatu eta gose-arazoak arintzen laguntzeko.

Agustin Ugartek, Behar Bidasoa GKEko presidentea azaldu duenez, “bestelako

erakunde eta pertsona partikularren laguntzari esker kudeatzen ari gara larrialdi-egoera”. Irungo Udalez gain, Azpeitiko Udalak, Mamore fundazioak, Estellako Elkargoak eta pertsona partikularrek egindako dohaintzak Kabugara beharrezkoak diren elikagaiak bidaltzeko erabiliko dira.

### Arazo kate amaigabea

Ruanda Giza Garapen Indizearen arabera, 177 herrialdeen artean 151 postuan aurkitzen da. Larrialdi egoeran, herrialdearen arazoak areagotzen dira, gosea eta oinarritzko beharrez gain, bestelako buru-hausteak eraginez. Hala nola, haurren huts egitea eskolara, paludismo eta malaria kasuen areagotzea, higie-ne arazoak edo edateko ura lortu eta garraiatzeko arazoak, besteak beste, azaleratzen dira biztanleen egunerokotasunean.

Pixkanaka, larritasun mailaren arabera, herrialdean sortutako arazo berriei konponbidea bilatu beharko zaie, azken 20 urteetan Behar Bidasoa erakundeak Kabugako garapen-poloan emandako aurre-rapausoak ezerezean gera ez daitezela.



GURUTZ AGINAGALDE, Bidasoa klubeko presidentzaiara hautagaia:

## “Orain arte ikasitakoa Bidasoaren esku jarri nahiko nuke”

Bidasoa Klubeko presidente izateko bere burua aurkeztu du Aginagaldek

**“Nik uste denok batera arraun eginda, olatua hartu dezakegu, Bidasoa nahi dugun tokira eramateko”**



**Gurutz Aginagalde, eskubaloi jokalaria irundarrak, bere burua aurkeztu du Bidasoa Klubeko presidente izateko. Hauteskundeak abenduko hilabetean ospatuko dira eta Aginagalderen hautagaitza da, momentura arte, presidente postua betetzeko era ofizialean aurkeztu den bakarra.**

**Denbora asko behar izan duzu hautagaitza aurkeztearen erabakia hartzeko?**

Ideiaren proposamena jaso nuenetik pare bat hilabete hartu nituen erabakia familia eta inguruko laguntzarekin pentsatzeko. Horren ostean, egun Bidasoako presidentea den Jose Angel Sodupe eta nire Logroño taldea jakinaren gainean jarri nituen.

**Postura aurkezten den beste hautagaririk dago?**

Jendeak asko hitz egiten du eta badira aurkezteko asmoa duen beste norbait dagoela esaten duten ahotsak. Esamesak dauden arren, gu gara errealitate bakarra, momentuz.

**Zerk bultzatu zaitu erabaki hori hartzera?**

Bidasoa sentitzen dudana bezala sentituta, orain arte ikasitakoa Bidasoaren esku jarri nahiko nuke. Momentu oso interesgarria da eskubaloiarentzat eta Bidasoa gailurrera eramateko lan egiteak asko ilusionatzen nau.

**Logroño taldea zure bigarren etxean bihurtu da azken urteetan?**

Bidasoa lehen mailan zegoenean, atzera pauso bat ematea erabaki nuen eta den-

borak erakutsi dit asmatu nuela. Esperientzia oso politak bizi izan ditut azken urteetan taldearekin, izan ere, Europan jolasteko aukera izan dut eta elkarrekin tituluak irabazi ditugu.

**Presidente aldatetak klubean eragin handia izan dezakeela uste duzu?**

Bai, zalantzarik gabe, faktore ezberdinak daude. Oraingo presidentek talde oso irteera puntu onean utzi du eta bazkideek eta Bidasoa taldearen ingurukoek erabaki beharko dute zer nahi duten taldearentzat. Nik uste denok batera arraun eginda, olatua hartu dezakegu, Bidasoa nahi dugun tokira eramateko.

**Presidente izatera iritsiko bazina, zeintzuk izango lirateke zure helburuak?**

Arlo ezberdinak daudenez, helburu ez-

berdinak dauzkat. Argi daukagu Bidasoaren eredia lehenengo taldea dela, baina, ezin dugu ahaztu, Bidasoaren oinarrian jende asko dagoela. Bestetik, etorkizunean Irungo eta Gipuzkoako ahalik eta jokalaria gehienei lehen taldera iristeko aukera eman nahiko genieke.

**Etorkizunean Bidasoa urrutira iristeko aukerekin ikusten duzu?**

Lan asko egin behar da Bidasoa urrutira iritsi dadin. Gipuzkoa eta Euskadi mailan hori lortu dezakeen talde bat bada, Bidasoa da talde hori.



# Entrenatzaile bezala estreinatu da Juan Dominguez Real Union taldearekin



**“Jendea denboraldi berria hasteko gogotsu egoitea garrantzitsua da”**

**“Jokalariez gain, afizioa ondo ezagutzen dut”**

Juan Dominguez entrenatzaile bezala estreinatu da denboraldi berri honetan Real Union taldearekin. Orain arte bederatzi denboraldietan jantzi izan du Juan Dominguezek talde irundarraren kamiseta zuri-beltza. Talde irundarraren barruan beteko duen hamargarren urtea berezia izango da. Izan ere, denboraldi berri honetan taldea garaipenetara gidatzeko ardura izango du.

**Nola ikusten duzu zure burua entrenatzaile bezala?**

Aldaketa handia izan da, baina, momentuz pozik nago. Lehen egunetan urduri nengoen arren, orain oso gustura nago jokalariekin zein nire laguntzaileekin.

**Entrenatzaile berria izateko proposamenak ezustean harrapatu zintuen?**

Proposamen jaso ostean, egun batzuk hartu nituen familiarekin hausnartzeko eta, azkenean aurrera egitea erabaki nuen. Bederatzi denboraldi egin ditut taldean jokalaria moduan eta postu hau aukera ezin hobea da niretzat.

**Kluba ondo ezagutzen duzula uste duzu?**

Bai, azken sei denboraldietan taldeko jokalaria izan naizenez, taldearen gauza onak eta txarrak ezagutzen ditut. Gauza asko ikasteko dauzkat oraindik, baina, ahal dudanean kluba laguntzen saiatuko naiz.

**Nolako izan da taldearekin eduki duzun lehen kontaktua?**

Hasieratik ia fitxaketa berri guztiak gurekin izan ditugunez, guztien artean denboraldi berria prestatu dugu. Aurre-denboraldi polita egin dugu eta partidu politik jokatu ditugu giro onean. Jendea denboraldi berria hasteko gogotsu egoitea garrantzitsua da.

**Afizioaren ilusioa taldearentzako presio izan daiteke?**

Jokalariez gain, afizioa ondo ezagutzen dut. Badira egunero etortzen diren zaletuak, baina, denboraldi berrian, gure emaitzekin gainontzeko zaletuak berriro erakartzen saiatuko naiz.

**Zein helburu daukazu denboraldi berriari begira?**

Cholo Siomeonek esan ohi duen bezala, gauzak partidutik partidura ikustea gusztatzen zait.

**Taldea play off-ean sartzeko aukerarik ikusten duzu?**

Bai, noski baietz. Aurretik esandako guztia ondo egiten badugu eta burua beti hurrengo partiduan zentratu badugu, seguru maiatzean postu polit, batean egongo garela eta, zergatik ez, play off-ean.

**GORKA MARTINEZ**

unpaisenmimochila.blogspot.com

# Algarbea ikuspuntu ezberdinetik ezagutzeko proposamena



Herrialde berri bat ezagutu eta turismoa egiteko era asko daude. Gero eta gehiago dira hotelen luxuak alde batera utzi eta motxila bizkarrean hartuta mundua ezagutzera abiatzen direnak. Bidaiatzeko modu horrek bisitariei nahi dituzten lekuak bisitatzeko eta leku bakoitzean nahi duten denbora emateko aukera eskaintzen die, erreserbak eta bidaia-agentziak alde batera utziz. Hona hemen, Portugaleko hegoaldean kokaturiko Algarbearen paisai ederrez gozatzeko zazpi egunetarako bidaia-proposamena.

## Bidaiaren hasiera

Lisboako autobus geltokitik Vila do Bisporaino bost orduko autobusa hartu. Herritik Castelejo hondartzaraino iritsi autostop eginez, kanpin dendak bertan muntatu eta gaua bertan pasatzeko.

## Tonel eta Beliche hondartzak

Goizaren lehen orduak hondartzan pasa ostean, gosari bero bat hartu eta berriro ere autostop bidez Sagresera iritsi. Herritik itsaslabarrak zeharkatzen dituen sei kilometro errepide bat abiatzen da, Tonel eta Beliche hondartzetatik igarotzen dena. Toneleko hondartza eta Sagreseko gotorlekua amildegiaren gainetik behatu ostean, Beliche hondartzako inguru harritsura iritsi gaua bertan izarrei begira pasatzeko.

## Bi egun Lagos

Sagresetik Lagosera doan autobusa hartu eta, Lagos inguruan hondartza asko daudenez, bi gau pasa bertan. Camping batean lekua hartu ostean, Dona Anako hondartzan arratsaldea pasa. Hondartza inguratzen duen itsaslabarretik Pinhao hondartza ñimiñoa ikus daiteke. Gauean herriko kaleetan ibiltzea egokia izan daiteke, Algaberko gauen giroa gertutik ezagutzeko.

Lagosan bigarren eguna Camilo hondartza ezagutzeko geldialdi txiki batekin hasiko da. Ondoren, Ponta de Piedaderaino iritsiz gero itsaslabarretik eskaintzen dituen bista ikusgarriez gozatu ahalko da. Porto de Mos hondartzan bazkaldu ostean, arratsaldea hondartzan atseden hartzen pasa, campingera itzuli aurretik.

## Carvoeiro hondartza

Campinga atzean utzi Carvoeiroraino iristeko. Bidaiaren ostean, eguna hondartzan pasa eta harkaitzen inguruan urpean igeri eginez gero arrain ezberdinak ikusteko aukera dago. Azkenik, hondartzan lo egiteko prestatu eguna amaitzeko.

## Carvalho eta Benagil hondartzak

Eguna hondartzan bainu bat hartzen hasi. Ostean, gauzak jaso eta ibilaldi luze baten ondoren, Carvalho hondartzara iritsi eta eguna bertan pasa. Ibiltzen jarraituz gero Benagil eta Marinha hondartzak ere bisitatu daitezke.

## Faro

Lagoatik Faroara iristeko autobus bat hartu. Bi orduko bidaiaren ostean eguna herrian pasa dezakegu edo herritik gertu dauden hondartzak ezagutzeko aprobetxatu dezakegu.

## Itzulera bidaia

Gaua Faro herriko portuan pasa ostean, Huelvara eramango gaituen autobusa hartu zazpi egunetako abenturari amaiera emateko.



# Belaskoenea LH1

**EUSKARAREN  
TXANTXAGORRIA**

SORTIALDEKO ARGI BERRIARI  
ARI ZAIO ASPALDI  
ARRATSEKO AZKEN IZPIARI  
EGUN ETA GIZALDI  
BULAR GORRI, HEGAKADA  
ARIN  
LUR HAUTAN DA EMARI  
ERREKA ETAIBAI  
ZABALAREN, ITSASOAREN  
EGARRI

LAU  
HAIZETARA



BERA DABIL AIREAN



BELARRITAN



EPELEAN

KALEAREN BIZIA

HERRI



HONEN



HAIZEAREN MAGAL LEUNEAN  
HEDATU DA OIHUA  
BIHOTZAREN TAUPADETAN,  
HITZAK SORTU DU DOINUA

OLATUEK BEREN SOLASEAN

AUKERATUTAKO HARRIA

DENBORAN ZEHAR DUTE  
JOLASEAN

ETEN EZ DADIN HARRIA



LAU

HAIZETARA HEGAN

BERA DABIL AIREAN

AHOTAN, BELARRITAN

SU EPELEAN

BIZIA

HERRI HONEN IRRIA



EUSKARAREN



HEGAN

# Denborapasak

## Bost kirol

A E S A B T D H O O U Z E Z J O J  
S R S O A N Z O T A D I M A M Z B  
E U R A P K K Y E I O P N X A R Z  
P S F A S F H T X K R A N K L O I  
I K K A U K Z F R E W C P Z J O I  
J A A U E N I A A G E G J O M O E  
B X N F B E A B S W Q H L O W T A  
S X E U L A K S A S O P E O I Y Z  
S A M K W G L Q J L E F E M Z F Q  
Y N X C I S Z O H E O X V Y V I N  
A A D H P H E T I I U I O Y E A I  
T F M I Y M W A Z A A C A E L M D  
B F U T B O L A C O Y K R G B A T  
A E B W U J U A O Y C U G V H Q T  
K X J A R X C Z X V Q T W A E L G  
E S K U P I L O T A Y F U A A R U  
Z W Q Y I A H I F T J I N B B H Y

				5			2
			4		7		3
	2	7	6	8		4	9
4		2	8				
	6			5			
5							2
8		6		2		3	
2	7		3				5 6
	5	3			8		4

Saskibaloia, esku pilota, futbola, arrauna, eskubaloia

# Euskaraz, Irunen barrena

## Bentas' en itxi bat erre zen

Bentas' en bazen itxe bat, izena zuen Mazuelaberrri. An bizi zien ama bat, eta semia, andria eta bere aurrakiñ.


Goiz batian joantzen gizona iriyak artu eta lanera. Amona geldittu zen sukaldarako eta eyerako lanak eitten. Bei bat zuten esne akokiñ eta keizentzen esnia biguntzeko. Joantzen tellan brsa artuta, eta beiyak bota ziyon ostiko bat emanta.

Azpiyan zuen iratzia asko, eta arek artu zuen su. Amonak ikusi zuenian sua gallentzen eskatu zituen beyak eta txerriyak eta denak, biñon etzean akordatu amona, andria oyan zagola eta eskallerak egintzien erre.

Amaitu gabeko kontaera, Irungo Kateako S.R.A. andereari jaso (1959). (El Bidasoa, 1960-II-27)

**Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga**  
Euskaraz, Irunen barrena

## Pilar Ikastetxea DBH2



# bideosare

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

bideosare.com



# Esperientzia ahaztezinak elkartrukatzen

"Youth for Leadership" izeneko elkartrukean parte hartu du udara honetan Iciar Iguñizek.



**“Oso esperientzia aberasgarria eta dibertigarria izan da aldi berean”**

**“Aurreiritziak baztertuz gero, beste kultura batzuk ezagutzeko aukera daukazu”**

**Greziako Salónica (Thessaloniki) hirian uztailearen 5etik abuztuaren 5era egin den elkartrukean kultura ezberdinak ezagutzeko aukera izan du beste bost gazte irundarrekin batera.**

**Nola izan zenuen elkartruke programa honen berri?**

Lagun batek eman zidan elkartrukearen berri, joan den urtean bere ahizpak parte hartu zuelako. Kartela ikusi ostean, Igazteren webgunean sartu nintzen informazio guztia irakurtzeko.

**Elkartrukea Grezian egitea zen aukera bakarra?**

Elkartruke ugari eskaintzen ziren webgunean, baina, adinarengatik, Greziakoa zen niretzat aukera bakarra.

**Nola laburbilduko zenuke esperientzia?**

Oso esperientzia aberasgarria eta dibertigarria izan da aldi berean. Beste herrialdeetako gazteekin batera bizi eta kultura ezberdinetatik ikasteko aukera izan dugu.

**Zenbat denbora egon zineten bertan?**

Elkartrukeak 11 eguneko iraupena izan zuen. Irungo taldekoek, ordea, gau bat pasa genuen Atenasen hiriburua ezagutzeko eta abuztuaren 7an itzuli ginen etxera.

**Zein beste herrialdeetako gazteak ezagutu dituzue?**

Beste bost herrialdeetako gazteekin elkartu ginen: Bulgaria, Errumania, Mazedonia, Hungaria eta Grezia.

**Etorkizunean beste elkartruke baten**

**parte hartzea gustatuko litzaizuke?**

Esperientzia ikaragarria izan denez, data egokiak eta gai interesgarriak lantzen dituen elkartruke bat topatuko banu, errepikatzea gustatuko litzaidake. Gainera, beste herrialdeetako gazteekin hitz egin ostean, Europar Batasunak uste baino elkartruke gehiago eskaintzen dituela jakin dugu.

**Zeintzuk izan dira landu dituzuen gaiak?**

Lehen egunetan giza-eskubideekin eta ijitoen kulturarekin loturiko ekintzak egin genituen batez ere. Gainontzeko egunetan, antzerkia, zinea eta argazkilaritzarekin loturiko tailerrak izan genituen. Ekintzak beti oso dinamikoak izan dira, jolas askorekin.

**Zer ikasten da horrelako elkartruke-**

**tan parte hartuz gero?**

Elkartruke motaren arabera gauza desberdinak ikasten dira. Batez ere, aurreiritziak baztertuz gero beste kultura batzuk ezagutzeko aukera daukazu, beste herrialdeetako bizi-estiloak nolakoak diren ikasiz. Nire kasuan, arreta deitu dit Europako beste herrialdeetako gazteek nolako pentsaera kontserbadoreak mantentzen dituztela ikusteak arreta deitu dit eta asko hausnartu dut horren inguruan.

**Zer da gehien gustatu zaizuna?**

Jende asko ezagutzeko aukera izan dugu eta lagun berri asko egin ditut.

**Gazteei horrelako esperientzietan parte hartzea gomendatuko zenieke?**

Bai, zalantzarik gabe.



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berria
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Web gunean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## Lansarean App berria

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak "Lansarean" proiektua jarri du martxan, alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiteko helburuarekin. Lan-ataria enpresa eta profesional euskaldunak ezagutzeko aukera erraztuko du, enpresei hautaketa-prozesuak erraztuz eta lan bila ari diren pertsonen lan-eskaintzen berri emanez.

**Zerbitzuak:** Orientazioa, lan abisuak eta formazio ikastaroen inguruko informazioa eskuratu daiteke aplikazioaren bitartez.

**Eskaintzak:** Lan eskaintzak arloa, herrialdea, eskualdea, herria, lan mota eta soldataren arabera bilatzeko aukera eskaintzen du aplikazio berri honek.

**Aplikazioa deskargatzeko:** Google play edo App store banaketa digital zerbitzuen bitartez.

**Izen-ematea:** Lansarea aplikazioa deskargatu ostean, "enpresa" edo "hautagai" bezala alta eman.

## Kiroldegietako 4. lauhilekoko ikastaroen matrikularako azken egunak

Urteko laugarren lauhilekoko ikastaroen izena eman nahi duten pertsona orori zuzendutako eskaintza da. Izena aurrez emana duten guztien artean zozketa bat egingo da ikastaroak, inskribatze datak eta ordutegiak aukeratzeko hurrenkeran erabakitzeko. Izen-emate bat aukeratzeko da kutxatik ausaz (3 zerrendatarako balio izango du), eta horretatik aurrera, eta alfabetoaren hurrenkeran, aurretiko hitzordua (eguna eta ordua) emango zaio pertsona bakoitzari izena ematera joan dadin.

**Izen-ematea:** Aurre-inskripzioak internet bidez, HAZeko terminalean edo Irungo kiroldegien harreretan egin ahalko dira.

**Lekua:** Artaleku eta Azken Portu kiroldegietan.

**Informazio gehiago:** 943505780 eta 943505757 telefono zenbakietara deituz edo recepcion.kirolak@irun.org posta elektronikora idatziz.

**LANsarean**  
EUSKARAZKO LAN ATARIA

[LANSAREAN.EUS](http://LANSAREAN.EUS)

## Sarreraren zozketa Gate Txartelaren bitartez

Gazte Txartelak hileroko antolatzen dituen zozketetan, Donostiako Aquarium-erako, Irungo Oiasso museorako eta Zarauzko Photomuseum-erako sarrera bikoitzak eskuratu daitezke. Gazte-txartelaren titular guztiek sarrerak irabazteko aukera izan dezaten, aurreko hilean sarrerarik irabazi ez duten pertsonak izango dute lehentasuna hileroko. Zozketetan parte hartzeko ezinbestekoa da Gazte-txartelak ezartzen dituen baldintzak onartzea.

**Zozketan parte-hartzeko:** <http://www.gazteukera.euskadi.eus> webgunean, albisteen atalean.

**Irabazleak:** Irabazleen izenak webgunean argitaratuko dira.

**Saria:** Zozketan irabazitako sarrerak aquariumaren edo museoaren leihatiletan jaso ahalko dituzte irabazleek bisitaren egunean bertan.

**Iraungitze data:** Zozketa araberako, iraugitze data desberdina izango da.



## urtzi goi gana

INMOBILIARIA



Pisua salgai Nafarroa Hiribidean: 82 m<sup>2</sup>-ko azalera, 3 logela, bainugela, egongela, sukaldia, igogailua. Ref: VIP03 / **Prezioa: 146.000**



Triplexa salgai Palmera-Monteron: 270 m<sup>2</sup>-ko azalera, 5 logela, 3 bainugela, 50 m<sup>2</sup>-ko egongela, igogailua, terrazak. ARGITSUA. Ref: VIPM01 / **Prezioa: 590.000**



Pisua Bentak auzoan: 70 m<sup>2</sup>-ko azalera, 3 logela, bainugela, egongela, sukaldia, igogailua, balkoia. LEKU LASAIA. Ref: VIP02 / **Prezioa: 134.000**



Pisua Lapitze auzoan: 70 m<sup>2</sup>-ko azalera, 2 logela, bainugela, egongela, sukaldia, balkoia, bosgarren solairua. BISTA POLITAK. Ref: VIP01 / **Prezioa: 120.000**



Pisua Anakan salgai: 70 m<sup>2</sup>-ko azalera, 3 logela, bainugela, egongela, sukaldia eta balkoia. LEKU LASAIA eta ARGITSUA. Ref: VPI12 / **Prezioa: 135.000**



Pisua salgai Udaletxe ondoan: 80 m<sup>2</sup>-ko azalera, 2 logela, 2 bainugela, igogailua. APARKALEKUA eta trastelekua erosteko aukera. ERAIKIN IA BERRIA. Ref: VPI04 / **Prezioa: 259.000**



Pisua Puianan salgai: 65 m<sup>2</sup>-ko azalera, 2 logela, bainugela, egongela eta sukaldia. APARKALEKUA ETA TRASTELEKUA barne. Ref: VIP20 / **Prezioa: 233.000**



Etxea Hondarribian alokairuan: 80 m<sup>2</sup>-ko azalera, 2 logela, bainugela, egongela eta sukaldia. APARKALEKUA barne. ARGITSUA. Ref: AAH01 / **Prezioa: 950**



Etxea Anakan salgai: 390 m<sup>2</sup>-ko azalera, 4 logela, 3 bainugela, sukaldia, terrazak, txokoa, aparteko bikoitza. LEKU LASAIA. Ref: VVI / **Prezioa: 410.000**



661 875 785

[www.inmobiliariaurtzigoigana.com/eu/](http://www.inmobiliariaurtzigoigana.com/eu/)

Alokatua / Salmenta / Eraginkortasun Energetikoaren Zuztaginak / Arkitektura zerbitzuak / Home Staging zerbitzuak (irabaztearen alantza) Zure etxebizitza elertzen badiguzu, Eraginkortasun Energetikoaren Zuztagin eta Home Staging zerbitzuak dorenin eduki ditzu (kontsumatu baldintzeki)

# Uztailak

**15**

**15** era arte

**14-16**

## "Girabira" antzerkia

**Zer?**  
Irungo parkeak deskubritzeko etxeko txikientzako ekintza ezberdinak.

**Non?**  
Irurtzuntzar parkea.

**Ordutegia?**  
12:30etatik 16:30etara

**Informazio gehiago:**  
<https://girabira.net/webgunean>.

## "Palestina" argazki erakusketa

**Zer?**  
Palestinan historiako gertakari garrantzitsuenak iruditan biltzen dituen argazki erakusketa.

**Non?**  
Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan.

**Ordutegia?**  
Ostegunetik larunbatera 19:00etatik aurrera.  
Prezioa: Sarrera librea.

## Expogrow Kalamuaren Nazioarteko VII. azoka

**Zer?**  
Kalamuaren inguruko kulturaren data garrantzitsuenetako batean sektoreko aditu eta profesionalak publikoarekin bat egingo dute.

**Non?**  
Ficoba (Iparralde, 43).  
Ordutegia: Zehazteko.

**Sarrerak?**  
<http://www.expogrow.net/2018/entradas/> webgunean edo leihatilan eskura daitezke.



## Denborapasen emaitzak

A	E	S	A	B	T	D	H	O	G	U	Z	E	Z	J	O	J
S	R	S	O	A	N	Z	O	T	A	D	I	M	A	M	Z	B
E	U	R	A	P	K	K	Y	E	I	O	P	N	X	A	R	Z
P	S	F	A	S	F	H	T	X	K	R	A	N	K	L	O	I
I	K	K	A	U	K	Z	F	R	E	W	C	P	Z	J	O	I
J	A	A	J	E	N	J	A	A	E	G	J	O	M	O	E	
B	X	N	F	B	E	A	B	S	W	O	H	L	O	W	T	A
S	X	E	U	L	A	K	S	A	S	O	P	E	O	I	Y	Z
S	A	M	K	W	I	L	Q	J	L	E	F	E	M	Z	F	Q
Y	N	X	C	I	S	Z	O	H	E	D	X	Y	V	I	N	
A	A	D	H	P	H	E	T	I	J	U	I	O	Y	E	A	I
T	F	M	I	Y	M	W	A	Z	A	A	C	A	E	L	M	O
B	F	U	T	B	O	L	A	C	O	Y	K	R	O	B	A	T
A	E	B	W	U	J	U	A	O	Y	C	U	G	V	H	O	T
K	X	J	A	R	X	C	Z	X	V	O	T	W	A	E	L	G
E	S	K	U	P	I	L	O	T	A	Y	F	U	A	A	R	U
Z	W	Q	Y	I	A	H	I	E	T	J	I	N	B	B	H	Y

9	8	4	7	3	5	1	6	2
6	1	5	4	8	2	7	3	3
3	2	7	6	8	1	4	9	6
4	8	2	8	7	6	6	3	1
7	6	1	2	5	3	8	4	8
5	3	8	1	4	9	6	2	7
8	4	6	5	2	7	3	1	9
2	7	9	3	1	4	8	5	6
1	6	3	8	8	8	2	7	4

## Abuztuaren 30etik irailaren 2ra

### Arbes auzoko jaiak

- 31ean**
- 11:00: San Martzial ermitan meza auzoko zenduen alde.
  - 16:00: Haur jokoak eta urrezko zezena.
  - 17:00: Txokolatada.
  - 18:00: Plazatxoatik Buruhandien irteera Peña Poteo Txarangak lagunduta.
  - 20:30: Sevillanak Caramelo taldearekin.
  - 22:00: Mario Simancas eta Enrique Loyolarekin bakkarrizketak.
  - 23:30: Dj Eventos

- 1ean**
- 09:30-12:00: Spinning maratona.
  - 10:00: Eskulanak eta marrazki txapelketa.
  - 11:00: Igela txapelketa (Heldu eta txikientzat).

- 12:00: Toka txapelketa. Kantuz-kantu inguruko tabernetatik
- 16:00: Mus txapelketa, Doopies Juan Wolmer tabernan.
- 17:00: Pailazoak (Joxepo).
- 18:00: Askaria.
- 19:00: Plazatxoatik Buruhandien irteera Elektrotxaranga Matraka lagunduta.
- 22:30: Rock Kontzertua Marmoka (Hondarribia) eta Voltaia (Zumaia) taldeen eskutik.

- 2an**
- 09:00: Irungo Txistularien Bandaren eskutik Diana.
  - 10:00: Balkoi lorehun txapelketa. Saria, nafar xoten emanaldiaren ostean emango da.
  - 10:00: Patata tortilla lehia-

- keta. Amaieran pintxo-potea txoznan tortilak dastatzeko.
- 12:30: Nafar Xotak Tuterako Acordes Navarros taldearen eskutik.
- 14:30: Bazkari herrikoa. Prezioa: 15 €
- 16:30: Truck txapelketa, Arbes tabernan.
- 18:00: Herri kirolak, plazatxoan.
- 20:00: Erromeria Jeiki Hadi eta Meakako dantza taldearekin, eta jai amaierako traka.



Udara honetan Caser Residencialek Anakan zein Betharramen dauzkan egoitzetan era guztietako ekintzak antolatu dituzte. Eguneko zentroetako erabiltzaileek eta egoiliarrek Betharram zentroan antolatutako paella-jatean, Anakako egoitzaren terraza berriaren inaugurazioan, erakusketa eta tailer desberdinetan parte hartu ahal izan dute udako hilabeteetan zehar.

Zentroaren barnean antolaturiko ekintzez gain, hondartzara irteerak egin dituzte. "Oztoporik gabeko bainuak" izeneko programaren barnean, Betharram eta Anaka zentroetako erabiltzaileek Hondarribiko hondartzan bainu bat hartzeko aukera izan dute. Udako hilabeteetan zehar astean bi irteera antolatzen dira, egoitzetako erabiltzaile ezberdinak txandakatuz.

Udako ekintzen zerrenda luzearekin amaitzeko, Caser Residencial Betharramen Ama Guadalupeko jaiak ospatuko dituzte. Hondarribiko jaiak ospatzeko, egoitzaren instalazioak zuri, gorri eta beltzez apaindu dituzte egoiliarrek Elaia Rodrigo animatzaileak antolaturiko tailerretan egindako eskulan eta apaingarriekin.

Kantinerak hautaketan bi hautagai aurkeztu ostean, Garbiñe Elorza izango da aurtengo kantinera. Jai giroan sartzeko, alderdien aldarrikapena, alardearen entsegu nagusia eta 2017 urteko alardearen argazkien erakusketa antolatu dituzte. Gainera, Mendelu konpainiak egoitzara hurbilduko da, egoiliarrekin batera, egoitzaren instalazioen inguruan desfilatzeko. Irailaren 8an alardearen zuzenean telebistan ikusteko aukera izango dute egoiliarrek egun osoan zehar. Azkenik, irailaren 10ean, egoiliarrak Hondarribian egiten den adinekoen omenezko bazkarira gonbidaturik daude.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM